

Kultura

Ganso&Cia Durangoko San Agustin kulturguneko konpainia egoiliarak 'Kaput' antzeulan berria aurkeztuko du asteburuan, antzoki horretan. > 11



40 urteko espetxe zigorra ezarri diote Benito Quintairos abadiñarrari

2014ko abenduaren 10ean Amelia Rodriguez bere amaginarreba eta Mari Luz Alejo bere emaztea hiltzeaz akusatutako Benito Quintairos abadiñarrari 40 urteko kartzela zigorra ezarri dio Bizkaiko probintzia epaitegiak. Urriaren 28ko data du sententziak, eta Quintairosek hildako emakume bien gertuko familiarrekoei indemnizazioak ordaintzera ere zigortu dute. > 8

“Zaborraren kudeaketa integrala behar da, hori diote Europatik datozen dekretuek ere”



M. Gallastegi | Ingeniaritza kimikoan doktorea > 10

Zebra-bideetan, kontuz

Durangoko zebra-bideetan azkenaldian gertatutako istripuek kezka eragin dute. Joan zen barikuan bertan, gidari batek ume bi harrapatu zituen San Agustinalden; Stop Accidenteseko Rosa Trinitaderek arduraz jokatzeko deia egin du, eta azterketa beharra dagoela dio. > 4



Lehior Elorriaga

merkataritza
gida sarean

anboto.org/gida

Merkataritza gidan agertzeko deitu: 946 217 902



Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

Zornotza > 2

Arau subsidiarioen aldaketak Eroskiren irekiera ahalbidetuko du

Abadiño > 8

Muntsarazko hauts beltzaren jatorria aztertzen dabil udala

Berriz > 9

Euriak neguan eragindako kalteak konponduko dituzte

Otxandio > 8

Otxandioko bonbardaketa Madrilen kontatuko du alkateak

Herririk herri

Eroskiren etorrera ahalbidetuko duen arau aldaketa onartu du udalbatzarrak

EAJ eta PSE-EEren aldeko botoekin atera da aurrera; EH Bilduk eta HiriEkimenak kontra bozkatu zuten



Joan zen asteko udalbatzarreko irudia bozketaren aurretik.

ZORNOTZA Joseba Derteano Eroskik Zornotzako Tantorra auzoan irekiko duen supermerkatua erreallitate bihurtzeko, udaleko arau subsidiarioak moldatu egin behar ziren. Joan zen barikuko udalbatzarrean eman zuten urrats hori EAJren eta PSE-EEren botoekin. EH Bilduk eta HiriEkimenak kontra bozkatu zuten, euren herri ereduagaz ez datorrelako bat.

Europako arautegiak 600 metro karraturainoko salmenta-gunea zuten supermerkatuak bakarrik ahalbidetzen zituen. Arau subsidiarioak aldatu ostean, 1.500 metro karraturainoko salmenta-guneko supermerkatuak etorri daitezke. Eroskik hedadura horixe izango du.

Edozelan ere, arauen moldaketak merkataritza-gune handiei mugak jartzan dizkiela

azaldu zuen Anartz Gandiaga EAJko zinegotziak. Arauak gaur egun dauden moduan, ohiko salmenta-gunez gainera, ezingo dira etorri handik kanporako dendak ere ahalbidetzen dituzten eredu komertzialak. Era berean, herrian garatu gabeko “beste partzela bakarra” dago, Eroski lako supermerkatu bat jaso dezakeena; Eroski joango den partzelaren ondoan dago.

Beste eredu baten alde

EH Bilduko Ander Uriarteren berbetan, “benetan denda txikien alde bagaude, ezin da onartu hipermerkaturik eraikitzea; beste eredu bat gura dugu”. Eroskiren etorrera ahalbidetuta, “interes pribatuak gailentzen dira herrian, herriak izan beharreko eztabaida eta erabakiaren gaitik”.

HiriEkimeneko Abel Isasik azaldu zuenez, beren oinarriekin kontsultatu diete, eta gaiaren inguruan beldur, duda eta zalantza ugari jaso dituzte: “Ez da Zornotzarentzat apustu egiten dugun eredu. Merkataritza-gune handiek izan ohi duten jarra-espekulatiboa herriko ekoizle txikiak pairatu dezakete”.

Andoni Agirrebeitia alkatearen esanetan, zornotzar asko “herritik kanpora” joaten dira erosketak egitera: “Erosketa horiek egitera zornotzarrak herritik ez irtetea gura dugu”. Gainera, supermerkatuak Arratiako jendea erakarri dezakeela uste du, eta horrek komertzio txikia “indartu” dezakeela.

Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformaren kontzentrazioa

ZORNOTZA J.D.

Europar errefuxiatuen arazo larriari buruz kontzientziatzeko eta gai hori herrian zabaltzeko, Ongi Etorri Errefuxiatuak plataforma sortu zuten irailean, Zornotzan. Herriar talde batek osatutako plataformada da.

Kontzientziario kanpainen barruan, kontzentrazioa egingo dute zapatu honetan, 12:00etan, Sabino Arana kaleran. Ondoren, toki berean, informazio mahai bat jarriko

Kontzentrazioaren ostean informazio mahai bat jarriko dute, eta intsigniak, zapiak... banatuko dituzte

dute. Mahaian intsigniak, zapiak... banatuko dituzte ‘Ongi Etorri Errefuxiatuak’ leloagaz. Herriarrei bertaratzeko deia egin diete, eta politikariei ere gonbita egin diete norbanako moduan bertaratu eta plataforma ezagutu dezaten.



Narko taldeak zuzenekoak eskainiko du.

Mariachiak eta Narkoren zuzenekoak ikusteko aukera

Luis Urrangoetxeako jaiak dira hilaren 10etik 13ra

ZORNOTZA J.D.

Luis Urrangoetxea kalean jaiak ospatuko dituzte azaroaren 10etik 13ra, Lutaber elkarteak antolatuta. Datorren egunean, 19:00etan, hasiko dira txupinazoagaz eta buruhandiekin. Ondoren, pintxo poterako aukera egongo da.

Barikuan, 19:00etan, Mexikoko doinuak entzuteko aukera egongo da Mariachi Real Azteca izeneko taldeagaz. 22:00etan, musika kontzertua hasiko du Blanco y en Botella taldeak.

Azaroaren 12a, zapatua, Antxotapantxa antzerki saioagaz hasiko dute. Sukalki lehiaketa

izango da ostean. Kaleko tabernetan egin daiteke izenematea (1,5 euro pertsonako). Arratsaldea Zaparrada taldeak girotuko du, eta, 21:30ean, Bonus Track punk rock taldearen eta Narko rap metal taldearen zuzenekoak hasiko dira.

Domekan, 15:00etan, Lutaberreko errifaren zozketa egingo dute. Euro bat da errifa bakoitza. Lehen sariak Portugaleko iparraldera bidaia irabaziko du Aste Santuan, bost egunerako eta bi lagunentzat. Bigarren saria Athletic Vila-Real futbol partidua ikusteko bi sarrera dira.

anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2016ko azaroaren 4a
14. urtea - 652. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Itxaso Martinez de Arenaza Yarza eta Nagore Txintxurreta Isasi.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urriaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, eta Maialen Zuazubiskar Gallastegi.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Saillaburuetzak) diruz lagundua”



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jasoko du



Zabaldute biblioteka, leku “atsegin eta garbiagoa” eskainiz

Metro koadroak eta metro linealak irabazi ditu berrantolatutako azpiegiturak



Sei hilabetean itxita egon ondoren, eguaztenean zabaldute zituen atekak itxuraldatutako bibliotekak.

IURRETA A. Basauri

Sei hilabetean itxita egon ondoren, zabalik dago berriro ere Iurretako biblioteka. Itxuraldatuta ireki ditu berriro atekak, leku “atsegin eta garbiagoa” eskainiz, Ziortza Onaindia libu-

rutegiko arduradunak azaldu duenez. Gaineratu duenez, aurreneko egun hauetan joandako erabiltzaileak “oso pozik” azaldu dira eraberritutako bibliotekagaz. Ia 200.000 euroko inbertsioa eskatu dute apirillean hasi-

ziren berrantolaketa lan hauek.

Metro koadroak eta metro linealak irabazi ditu liburutegi berriak. Hartara, orain, 265 metro koadro eta 648 metro lineal ditu. Era berean, “lekuaren berrantolaketa askoz zehatzagoa

eta argiagoa” da, Onaindiak azaldu digunez: “Irakurtzeko eta ikasteko guneak bereizita daude, bakoitzak bere lekua du. Halaber, aldizkariari zein hermerotekari begiratu emateko mahaia eta besaulkiak jarri ditugu”.

Eguaztenea egun mugitua izan zuten bibliotekan, Onaindiak aitortu lez: “Espero genuen. Ikustera etorri dira asko, eta liburutegia itxi aurretik maileguan hartutako guztiak bueltatzera. Pozik azaldu dira erabiltzaile direnak; eta ez direnak ere bai”. Azken horiek ere bibliotekara etortzea poztekoa litzatekeela ere gaineratu du: “Leku atseginagoa lortu dugu, eta toki berriek beti erakartzen dute jendea. Itxura hobea du liburutegiak, dagoena ikusi egiten da, eta horrek ere erakarri lezake jendea”.

Inaugurazio jendetsua

Joan zen urriaren 29an egin zuten inaugurazio ekitaldia. Elkarteak eta administrazioko ordezkariak gonbidatu zituzten bertara goizean. Arratsaldean, berriz, herri osoari zabaldutako ekitaldia izan zen. Ekitaldi jendetsua: “Erantzun oso ona izan genuen, eta oso pozik gaude. Bibliotekara ez doazenen ahotan ere iritzi ona entzun genuen”.

‘Herri txiki, infernu handi’ saioa grabatu zuten astelehenean

ZALDIBAR A. Esteban

‘Herri txiki, infernu handi’ ETB1eko saioaren grabazio taldekoak astelehenean egon ziren Zaldibarren, programa grabatzen.

Besteak beste, Garitazelaia baserria bisitatu zuten. Horrez gain, hainbat zaldibartar elkarrizketatu zituzten Zuhaitz Gurrutxaga eta Mikel Pagadi aurkezleek: erreportari gazte bat, egutegi solidario batean biluzik agertu zen lagun talde bat, zein harategian Urtainen argazki bat daukan harakin bat.

Zaldibarren grabatutako saioaren atal hau urte honen amaieran edo datorren urtearen hasieran emitituko dute.

Herritarrentzat emanaldia

Grabatutakoaren emanaldi bat eskainiko dute herritarrentzat, azaroaren 10ean, Zaldibarko kiroldegian. Hitzordu horretara bertaratzeko diren herritar guztiak zuzenean ikusi ahal izango dute saioa bakarrikzaren grabaketa.



Clase A 200 d SPORTIVE AMG Berria, hilean 220€-ren truke.

Clase A SPORTIVE AMG heldu da, txundituta utziko zaituen esperientzia bizi ahal izateko. AMG Barruko eta kanpoko diseinua, AMG 18"ko aleaziozko hagunak, DYNAMIC SELECT (4 gidatze-sistema), lozagi bikoitza eta 7 abiadura dituen 7G-DCT aldaketa automatikoa direla eta, Clase ASPORTIVE AMG-k errepidea eskatzen ari zitzaien kirol-aldaketa ekartzen dizu. Probatzeko prest? Zuretzat da, hilean 220€*-ren truke, 48 kuotatan (sarrera 9.689,09€, azken kuota 17.918,86€*, ITN %7,95, UTB %9,28). Eta Fidelity Zerbitzua, hilean 36€-ren truke, 3 urteko bermea eta 5 urteko osoko mentenimendua, 100.000 Km egin arte (higatutako pieza barne, pneumatikoak izan ezik).

Ziklo nahasian kontsumoa 4,0-3,8 l/100km eta CO₂-a isurtzea 103-99 g/km.

*Finantzaketa-erregimena: Clase A 200d SPORTIVE AMG eta aldaketa automatikoa, 1P. 31.675€ (zerbak eta garrak barne; aurre-entregatze gastuak kanpo), Mercedes-Benz Financial Services España, E.F.O., S.A.-ren Alternatib programari esker. Bruselas Etorbidea 30 - 28106 Madrid. Balioak: 2016/12/31ra arte onartutako eskariak eta kontratu indarrean; bezeroak 14 eguneko epea dauka eskaintza uko egiteko. Finantziatu beharrezko zenbatekoa 21.985,91€. Hilean 220 €, 48 kuotatan, arken kuota 17.918,86 €, sarrera 9.689,09 €, ITN %7,95, zabalte-komisioa 657,38 € (82,99%), UTB %9,28. Guztira ordaindu beharreko zenbatekoa 29.136,24 €. Guztira epokako zenbatekoa 38.825,33 €. Balioak eskaintza 20.000 Km/urtean. Arken kuotarako 3 aukera: ibilgailua aldatu, itzuli (kontratua baimentzeko betez gero) edo ibilgailua eskuratu, arken kuota ordaindu ondoren. Argirik modelo ez dagoen eskaintza. Informazio gehiago www.mercedes-benz.es-en.

AMG
DRIVING PERFORMANCE



AGUINAGA

Bizkaiko Mercedes-Benz kontzesionario ofizial bakarra
info@aguinaga.es www.aguinaga.es

Borja Industrialdea, 2, Nabea 3
48340 ZORNOTZA
Tel.: 94 630 17 47

Durangoko zebra-bideetan gertatu diren istripuek kezka eragin dute

Aurten 13 istripu jazo dira Durangon, azkena barikuan; udaltzaingoak esan du ez dagoela puntu beltzik



Zebra-bideetan 'kontuz' berba dago idatzita. Lehiur Elorriaga

DURANGO Markel Onaindia
Zer gertatzen da Durangoko zebra-bideetan? Azkenaldian istripu ugari gertatu dira, autoek oinezkoak harrapatuta. Kalean ahoz ahoz dabil gaia, eta baita

hedabideetan zein sare sozialetan ere. Kausak argitzea eta soluzioak topatzea beharrezko ikusten dute askok.

Udaltzaingoak urriaren 12ra arte zenbatutako datuen arabere,

aurten 10 oinezko harrapatu dituzte Durangon –gehienak zebra-bideetan diren arren, ez dute sailkapenik egin-. Baina, urriaren 21ean eta 23an beste bi istripu gertatu ziren Madalanan

eta Larrasoloetan, eta joan zen barikuan, 80 urteko gizon batek 9 urteko ume bi harrapatu zituen. Beraz, dagoeneko 13 dira harrapaketak. Iaz 8 oinezko harrapatu zituzten; 2014an 14; eta 2013an 12. Ezin esan istripuak goraka doazenik, baina kopuru guztiak batuta, zer hobetu badagoela ikusi daiteke. Udaltzaingoaren esanetan, ez dago istripuak pilatzen diren puntu beltzik.

Semafororik ez

Durangoko Udalak herriko mugikortasuna hobetzeko estrategiak martxan ditu, eta horren baitan, trafikoa lasaitzea helburu zuten neurriak hartu zituen, oinezkoei eta txirindulariei garrantzi gehiago emateko asmoz eta ingurugiroan pentsatuta. Hainbat kale norabide bakarreko bihurtu ziren, biribilguneak egin ziren, eta semaforoak kentzen hasi ziren; 2006an 148 semaforo zeuden herrian, eta 2013az geroztik Durangon ez dago semafororik. Gero ere, zebra-bideen egoera hobetzeko ekintzak garatu dituzte, iaz Fray Juan Zumarragako argiztapena indartzea, esaterako. Herri barneko abiadura 30km/h-ra bajatzeko ideia eztabaidatzen ere badabilta, ANBOTOK jakin ahal izan duenez.

Horrez gainera, kontzientziazio dinamikak sustatu dituzte ume, gazte eta helduekin.

Istripu igoerarik ez

EAJ eta PSE-EEren gobernu taldearen arabera, ez da istripu igoerarik egon, alderantziz baizik. 1992tik 2003ra 10.000 biztaleyko 10,1 harrapaketa gertatu zirela dio gobernuak, eta 2004tik 2013ra 2,9 izan zirela batez beste. Gaur egun, 2,8koa ei da datua. Bizkaiko beste herri askotan, datua 5,3 dela nabarmendu dute

Trafikoa lasaitzea helburu zuten neurriak hartu zituen, oinezkoei eta txirindulariei garrantzi gehiago emateko

gainera, eta Durango batez beste koaren “oso behetik” dagoela. “Egindako lanek emaitza onak eman dituzte, eta beste herri batzuentzat eredu gara”. Udaltzaingoaren iritziz, istripurik gehienak despisteengatik dira.

Azterketa beharraz

Zebra-bideetako istripuen gaia azken osoko bilkurara ere heldu zen, EH Bildu eta Herriaren Eskubidea alderdien eskutik. Egoeraren inguruko azterketa bat egitea eskatu zuten biek. Dani Maeztuk (EH Bildu) adierazi zuen “erabaki ona” izan zela trafikoa berrantolatzea, baina berrazterketa beharrezkoa dela. Julían Riosen (HE) iritziz, segurtasuna indartzeko kontzientziazio kanpaina gehiago egin beharko lirakeke.

“Ikaratuta gaude gertatzen dabilena ikusita”

Telefonoa eta argitasun falta istripuen eragileetakoak direla dio Trinidadek

Auto gidari batek Rosa Trinidad semea harrapatu eta hil zuen bizikletan zihoala, 2004an. Hori gutxi ez, eta gidariak indemnizazioa eskatu zion familiari. Orduko borroka hartan gogortua, trafikoa- ren segurtasunagatik kezkatzen hasi zen, eta gaur egun Stop Accidentes Euskadiko ordezkaria da Trinidad durangarra. Hoberantz goazela us-te du, baina hobetzeko asko dagoela ere bai.

Zelan jaso dituzu azkenaldiko istripuak?

Egia esan, ikaratuta gaude gertatzen dabilena ikusita. Gizarteari mezu bat bidaliko nioke: guztiok dugu zerikusia trafiko-

koan, eta guztiok ipini behar dugu gure alea. Durangar guztiok gaude gai honegaz ardurata. Negua heltzen dela ikusten dugu, eta istripuak gertatzeko arriskua handituko da.

Zergatik gertatzen dira zebra-bideetako istripuak?

Faktore askok eragiten dutela esango nuke. Tragedia horiek oinezkoen pasabideetan gertatu izana esanguratsua da. Seguruenik, gidaria despistatu egin da, eta ez du oinezkoa ikusi. Gaur egun, mugikorra asko erabiltzen da gidatzen den bitartean, eta areagotzen ari da, gainera. Tamalgarria da. Bestalde, argiztapena ere puntu garrantzitsua da. Hobetzen

ahalegindu dira, baina, akaso, ez da behar beste edo behar bezala egin. Mugikortasunaz arduratzen den enpresa bat litzateke egokiena iritzia emateko. Análisi sakon bat egin beharra dago, istripuak izan diren lekuen edota orduen inguruan. Aparte, zebra-bide batzuen alboetan kontainerrak daude, eta ikusteko gaitasuna murrizten dute; hori aztertu beharra dago. Horrez gainera, oinezkoek ere erru zati bat eduki genezake batzuetan, ez dugulako begiratzen gurutzatu aurretik.

Ez da berdina eguzkiagaz edo euriagaz gidatzea.

Ezin dira abiadura berdinean joan. Erreakzio gaitasuna ez



Rosa Trinidad, Stop Accidentesek Pinondon duen bulegoan.

da berdina 30 km/h edo 40 km/h bazoaz, eta segundo bat oso garrantzitsua da sarritan.

Eta alkohola edo drogak badaude tartean...

Arduragabea da, gaitasuna murrizten delako. Bakoitza egin dezala gura duena bere bizitzagaz, baina ibilgailu bat gidatzen zauden unean, gainera-

koen bizia arriskuan jartzen zabiltzala ulertu behar duzu.

Bizikletek harrapatu dituzten kasuak ere badaude...

Batzuk, batez ere gazteak, zoroen moduan doaz. San Faustotik datorren bidegorriko zebra-bidean txirindulari batek jota minusbalia bat duen pertsona batek deitu zidan, esate baterako.

Gerra Zibileko eta frankismo sasoiko lekukotzak webgune batean bildu dituzte

Durango 1936 elkarteak Durangaldean grabatutako 85 herritarren testigantzak emango ditu ezagutzera



Maria Igarza, Iñaki Gorritxategi eta Eskarne Aroma, 'Agurrik Gabeak' ekitaldian, Plateruenean.

DURANGO Markel Onaindia Memoria historikoaren ezagutzan eta transmisioan urrats bat gehiago emango du Durango 1936 elkarteak. Azken urteotan Gerra Zibilaren eta frankismoaren inguruko lekukotzak grabatzen aritu dira elkarteko kideak Durangaldean. Guztira, 85 le-

kukotza jaso dituzte Durangon, Iurretan, Abadiñon, Mañarian, Otxandion, Berrizen, Zaldibarran, Atxondon, Elorrioren eta Zornotzan. Bildutako testigantza horiek guztiak ezagutzera eman nahian, elkarteak webgunea osatzen dihardu. Hila-bete honetan bertan webgune

horren aurkezpena egingo dute. Horretarako, azaroaren 25erako hitzordua jarri dute Pinondon, 19:00etan. Egun horretan parte-hartzaileei aurkeztuko diete proiektua. Abenduaren 1ean, berriz, webgunea Durangaldeko udaletako kultura batzordeetako kideei eta alkateei erakutsiko

dieste. Abenduaren bukaeran, Durangoko Azokaren ostean, aurkezpen publiko bat egiteko asmoa dutela aurreratu du Andoni Barreña Durango 1936 elkarteko kideak.

890 pasarte

Elkarteak grabatutako elkarrizketa guztiak sailkatu eta webgunea osatzeko Unai Iturriaga bertsolariaren laguntza izan dute. Guztira, parte-hartzaileen 890 pasarte kontsultatu ahal izango dira. Era berean, hizlari bakoitzaren biografia eta batu ahal izan duten dokumentazioa ere azaltzen dira.

Omenaldia Plateruenean

Joan zen domekako Agurrik Gabeak ekitaldian Barreñak webgunearen berri eman zuen. Ekitaldi horretan, 1936 elkarteak Iñaki Gorritxategi, Maria Igarza eta Eskarne Aroma gerrako umeak omendu zituen Plateruenean.

70 lagun batu dira posta etxean Fraileri babesa emateko

DURANGO M.O.

LAB sindikatuak 70 bat lagun batu zituen joan zen barikuan Durangoko posta etxean, preso gaixo larrien zerrendan dagoen Gorka Fraileri babesa emateko. Bertaratutakoek mezuak idatzi, eta denak batera bidali zituzten. LABeko Eulate Zilonizaurrekoetxeak azaldu du Fraileren egoeraz ere informatu gura izan dutela ekimenagaz, berari "elkartasuna eta maitasuna" adierazteaz aparte. 2015ean mingaineko minbizia antzeman zioten Fraileri, eta egin zioten ebakuntza. Gaixo larrien zerrendan dago, minbizia berragertzeko arriskua dagoelako oraindik. Horrela, bere aldeko plataformak askatasuna exijitu du.



Durangoko posta etxea.

Durangarrei iritzia eskatuko die Herriaren Eskubidea alderdiak

Gaur hasita, ekarpenak batzeko mahaiak ipiniko ditu Herriaren Eskubideak

DURANGO M.O.

"Durangarrek iritzia eman ahal izatea oinarrizko gauza da". Horixe uste dute Herriaren Eskubidea alderdikoek. Horrela, mahaiak ipiniko dituzte kalean, herritarren proposamenak jasotzeko. Ideia horiekin, 2017ko udal aurrekontuari ekarpenak egingo dizkiote, eta baita Podemos-Ahal Duguren eskualdeko dinamikari zein Batzar Nagusietako lanari ere.

Gaur, azaroak 4, San Fauston jarriko dute mahaiak; 10ean Andra Marian; 11n Aramotzen -Herria taberna parean-; 17an Madalanan, eta 18an Juan Itziarren. Guztietan, 19:00etatik aurrera ipiniko dute mahaiak. Horrez gainera, www.propuestabiarta.com webgunea zabaldu dute, ekarpenak Internet bidez egin ahal izateko.

Ekimen honegaz, Durango herriarrek aurrekontuaren

osaketan "protagonismo handiagoa" edukitzea lortu gura dute, Julián Ríos zinegotziaren arabera: "Durangarrek iritzia eman ahal izatea oinarrizko gauza da. Euren ikuspegia izatez, eta elkarlanean diru publikoa zertan inbertituko dugun erabakitzea".

EH Bilduk ere garatu zuen partaidetza prozesu bat auzotan, 2016ko udal aurrekontua osatzeari begira.

Auto-karabana egingo dute A-8an, zapatuan

Bidesariaren aurkako taldeak protestan darrai

DURANGO A.E.

Protestarako auto-ilara egiteko deia zabaldu du AP-8 Peajerik Ez plataformak biharko. 11:00etan, Tabirako igerilekue-tako aparkalekutik irtenda, Durango-Abadiño-Elorrio ibilbidea egingo duen martxa antolatuko du plataformak, eta dagoeneko, era horretako hirugarren mobilizazioa izango da. Aldundiak 30 euroko gehienezko kuota iragarri zuen 2017rako, baina plataformakoen ustez, zonalde

honetakoentzat "diskriminazioa" izaten jarraitzen du. Beraz, protestekin segitzen dute.

A-8a duela 13 urtez geroztik amortizatuta dagoen errepidea dela salatu dute, "garestia" dela, eta "kalitate gutxiako zerbitzua" ematen duela ere bai.

Dirua batzen

Protestez aparte, ekimenak finantzatzeko crowdfunding kanpaina ere badute martxan, goteo.org webgunean.

Ni Interneten .EUS naiz

Dagoeneko 6.000 enpresa, erakunde eta lagunek .EUS domeinua dugu

Eskatu zurea!

www.domeinuak.eus

"Nire marka mundu digitalean kokatzeko eta euskararekin lotzeko .EUS naiz"

Aiert Buruaga
Durango
Arkitektura & Diseinua
ab-ark.eus

gure domeinua



Aldundiak Durangoko Plnondon ipini du informazioa emateko bulegoa.

Katastroaren aldaketak kexa ugari eragin ditu arreta guneetan

Higiezin zerga aldatuta, herritarrak informazioa eskatzen dabilta

DURANGALDEA J.D. / M.O. Bizkaiko Foru Aldundiak higiezin katastroa berrikusi du aurten, 40 urtez moldatu barik egon ostean. Etxeen balioa aldatuta, Ondasun Higiezin gainerako Zergan (OHZ) -IBI gaztelaniaz- eragin du, eta herritar askok orain arte baino dezente gehiago ordaindu behar dute hemendik aurrera. Herritarren kezka eta jakin-mina piztu du gaiak, eta asko eta asko dira instituzioetako arreta guneetara jo dutenak.

Aldundiak Durangoko Plnondo etxean zabaldu du infor-

mazioa emateko bulegoa. Zehazki, irailaren 12an ipini zuten martxan zerbitzua, eta abendu amaierara arte egoteko aurreikuspena egin dute. Bertako langile batek esan du gainezka daudela, eta hara joan gura duten herritarrentzat gomendioa dauka: zita aurretiaz hartzea komeni da, 946 125 500 telefonoan.

Otxandion, euren kabuz Otxandion, oster, euren kabuz hasi dira aholkua eskaintzen. Izan ere, Urtzi Armendariz alkatearen ustez, ez da serioa otxandiar bat Durangoraino joan

behar izatea bere kasua aztertu dezaten: "Hori ez da administrazioa herritarrei gerturatzea". Gura duten guztiak udaletxera joan daitezke euren kasuan sarkontzera, eta "beharririk balego udalak tramitazioak egiten ere lagunduko lieke".

Kontua da Otxandion 600 etxejabe baino gehiago daudela, eta udaletxean hiru lagun dituztela kasuak aztertzeko: "Udaletxea kolapsatu egin daitekeela onartzen dugu, baina nahiago dugu horrelako kontu inportantei lehentasuna emanez herritarrei lagundu eta beste kontu

batzuk atzeratzea", azaldu du Armendarizek.

Udalak prozesuari ekarpenak egin ahal zizkiola uste du alkateak, baina Aldundiak ez diela kasurik egin salatu du: "Batzarrak eskatu genituen, baina gugaz ez zirela batzartuko adierazi ziguten. Udaletxetik egindako ekarpeni atea itxi izana oso txarto iruditzen zaigu". Ondorioa da "akats handiak" egiten ari direla: "Adibide bat jartzearren, Otxandionko lur zati bat Ubidea barruan kokatu dute. Hori gertatu da gauzak arin eta txarto egin dituztelako".

Katastroen eguneraketak zeresan handia eman du. Hori argi geratu zen joan zen eguaztenean, udalak kultur etxean egindako herri batzarrean. 200 lagunetik gora batu zen.

Azalpen publiko eske

Durangon, katastro aldaketaren inguruko informazioa ematea eskatu zuen Dani Maeztuk (EH Bildu) azken osoko bilkuran: "Azalpen publiko bat beharrezkoa dela uste dugu". Adibidez, auzo zaharrenetako etxeetan igarriko dute zergaren igoera, Aramotzen, San Fauston edota Juan Itziarren. Gobernu taldearen partetik, igoeraren aurrean zailtasunak dituztenei lagundu egingo zaiela esan dute.

Abadiñoko kasuan ere, katastroaren aldaketaren kaltetuentzat diru-laguntza bat sortuko dutela iragarri du Jose Luis Navarro alkateak, nahiz eta oraindik horren diseinuan pausorik eman ez.

Usatorreko bidea azarorako konpontzea aurreikusi dute

MALLABIA J.D.

Usatorre baserrirako bidea de-seginda geratu zen martxoko lur-jausiengatik. Ondorioz bertako bizilagunek irailean bidea konpontzeari ekin zioten. Igor Agirre alkateak aurreratu duenez, obrak epeen barruan garatzen ari dira. Lur mugimenduen ostean, pista atontzen ari dira orain. Era berean, zubi bat eraikiko dute. Horrela, baserri horretako bizilagunek azarorako bidea konponduta izan dezaketela aurreikusi dute udal arduradunek.

Prozesu irekitik irtendako proiektuen berri, martitzenean

ATXONDO J.D.

Kale Irekiak prozesuak Apatako herrigunean hirigintza arloan dauden arazoak aztertu zituen. Eragile eta sektore desberdinetako jendeagaz batu ziren beharrianak jakiteko. Ondoren, herritarrek lehentasunak markatzeko aukera izan zuten. Datorren martitzenean 19:00etan hasiko den batzordean, aukeratutako proiektuak eta lehentasunak zeintzuk diren jakinaraziko dute. Urtea amaitu orduko proiektu batzuk martxan jarri gura dituzte, udal ordezkarien esanetan.



Arandoño Torre kalean ehunka sardina buru bota dituzte.

Arandoño Torre ingurua, kaleko katuen jantoki

Auzokoak kexu dira katuei jaten ematen dietelako

DURANGALDEA J.G.

Ehunka sardina buru, saltxitxa hondarrak, hezurak... denetik aurkitu daiteke behinola Txorizoro diskoteka ezaguna egon zen orubean, Durangoko Arandoño Torre kalean. Katuak gustura dabilta orain porlanezko zoruan. Jendeak janaria botatzen diela-eta, auzokideak kexu dira. Janaria desegiterakoan sortzen den hatsa "jasangaitza" dela diote. "Ehunka sardina buru bota zituztenean, hatsa jasangaitza zen, eta bost bider joan ginen udaletxera kexatzen", azaldu du auzokide batek. Orube pribatua denez, udalak ezin duela ezer egin erantzun dietela diote auzokideek. "Udalak ezin badu garbitu orube pribatua delako, gu geu prest egongo ginatke garbitzeko, beti ere jendeak janaririk botako

ez duen ardura hartzen badu udalak".

Traña-Matienan ere bai

Kaleko katuei jaten emateak beste herri batzuetan ere hainbat arazo sorrarazi ditu. Abadiñoko Traña-Matienan auzoan, esaterako, Errota kultur etxetik gertu, jendeak katuei jaten ematen ziela-eta, udalak bandoak atera zituen. Inguru horretan etxeak eraikitzen hasi zirenean, katuek tren geltoki ingurura joaten hasi ziren. "Bizilagun batek kexa helarazi zigun, pertsona batek edo hainbatek katuei jaten ematen diela esanez. Isunik ez da jarri, baina ohartarazi diegu ezin dela kalean katuei jaten eman. Hesituta dagoen ingurua da, gune hori berreskuratzen dugunean arazoa konpondu egingo da".



Hainbat katu dabilta orube horretan, janari bila.

1.000 erosketabonu, 20 euroko prezioan eta 30 euroko balioan

ELORRIO M.O.

Elorrioko Merkataria Elkar-teak (EME) eta udalak 1.000 erosketabonu ipini dituzte elorriarren eskura, 20 euroko prezioa baina 30 euroko balioa dutenak. Deskontu-txartelak Berrio-Otxoa kaleko Laboral Kutxako bulegoetan egongo dira, abenduaren 4ra arte. 18 urtetik gorako elorriar bakoitzak bi txartel izango ditu eskuragarri gehienez, eta erosketabakoitza gehienez bi deskontu-txartel erabili ahal dira aldi berean.



GREMIOEN GIDA



ARKITEKTURA

**ARKI
TEK
SAN**

ARKITEKTURA BERRIKUNTZA TEKNIKOA
BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA TEKNIKOA

- OBREN ZUZENDARITZA
- PROIEKTUAK / BIRGAITZEAK
- ERREFORMA ETA GARAPENERAKO
- NEGOZIO LOKALEN PROIEKTUAK
- ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK
- NEURKETAK, PLANOAK
- ETA AURREKONTUAK EGITEA
- ERAGINKORTASUN
- ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK

WWW.ARKITEKSAN.COM
622 745 419
NIZETO URKIZU 12. ELORRIO
INFO@ARKITEKSAN.COM



GARBIKETA

**AZKARGI
GARBIKETAK**

Auzo elkarte, garaje
eta obra osteko garbiketak

Goietia, 46 - 2 esk. ELORRIO
Tel.: 615 791 215



LOREZAINNTZA

Jardines

Patxi
Lorategiak

Mantenua eta diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Montevideo, 23-1 ezk DURANGO
PATXI: 696 463 085



ITURGINTZA

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO
188 PK.

**UNAI
GARAY**

ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Kanpatorrosteta 7B, 3.A · 48200 Durango
659 673 790 · unaigaray@yahoo.es



DEKORAZIOA

JAIObarnizatuak

Markoen, ateen, zokaloen,
armairu aurrekaldeen eta
era askotariko altzairuen lakadura.

Pintura eta pintura apaingarria.

Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



LEIHOAK

Leihoak

ALUMINIOA · PVC-A · MISTOA

Casimiro Astola kalea, 12 ABADIÑO
info@ventanas-durango
Tel.: 652 736 339
www.ventanas-durango.com



**Profesional
onenak zure
zerbitzura!**

Otxandioko bonbardaketa Madrilen kontatuko du Armendariz alkateak

Madrilgo Memoria Historikoaren koordinakundeak gonbidatuta doa



Joan zen egueneko udalbatzarrean eman zuten Otxandioko herriari egindako gonbidapenaren berri.

OTXANDIO J.Derteano Madrigo Memoria Historiko eta Demokratikoaren Koordinakundeak memoriaren inguruko jardunaldia antolatu du azaroaren 7an. Otxandioko bonbardaketa izango da jardunaldi horietako osagai bat. Otxandioko herriari egindako gonbita onartuta, Urtzi Armendariz alkatea joango da herritar denen izean: “Gerra Zibiletik bizirik dirautenekin egon garenetan, gabezia horixe ikusten zutela adierazi izan digute, herritik edo gure ingurutik kanpora ere

Otxandion gertatu zena ezagutu ez izana, hain zuzen ere. Kontatzen ez badugu, ez da jakingo”, adierazi zuen Armendarizek joan zen egueneko udalbatzarrean gonbidapenaren berri eman zuenean.

Ekitaldia astelehenean, 18:30ean, izango da Madrigo Conde Duque kultur etxean. Gerra Zibilean Madrigo Defentsa lez ezaguturiko gertaerak jazo zireneko 80. urteurrenean antolatu dute. “Otxandion jazo zena kontatzea eta memoria historikoa berreskuratzearren garran-

tzia azpimarratzea” izango dira Armendarizen berbaldiaren zutarriak.

Argentinako kereila

Otxandioko alkateaz gainera, beste hainbat hizlari izango ditu ekitaldiak. Frankismoko biktimen inguruan, Argentinako kereilako abokatua den Ana Messuti eta Angel Bahamonde historiatzailea izango dira horietako bi. Ekitaldira Frankismoko biktimak, magistratuak, sindikatuak... gonbidatu dituzte.

40 urteko kartzelaldira zigortu dute Quintairos

Bizkaiko probintzia epaitegiak ezarri du zigorra

ABADIÑO Itsaso Esteban Urriaren 28ko data du Bizkaiko probintzia epaitegiaren bigarren sekzioak eman duen epaiak: 2014ko abenduaren 10ean Amelia Rodriguez bere amaginarreba eta Mari Luz Alejo bere emaztea hiltzeaz akusatutako Benito Quintairos abadiñarrari 40 urteko kartzela zigorra ezarri dio epaileak.

Amelia Rodriguez eta Mari Luz Alejo hiltzeagatiko erantzukizun zibilari dagokionez, emakume bien gertuko familiarrekoei indemnizazioak ordaintzera zigortu du Bizkaiko Probintzia epaitegiak Benito Quintairos abadiñarra.

Epaiak ez da behin betikoa, eta hamar eguneko —senten-

tzia publiko egin den egunetik— epea dauka defentsak Euskadiko Justizia Epaitegi Nagusian helegitea aurkezteko. Quintairos orain arte egon den egoeran, prebentziozko espetxeratzean, mantendu dezatela ere agindu du epaileak.

Aho batez, errudun

2014ko abenduaren 10ean Amelia Rodriguez amaginarreba eta Mari Luz Alejo emaztea hiltzeaz akusatutako Benito Quintairos abadiñarra erruduntzat jo zuten zinpeko epaimahaiko bederatzikideek, urrian. 43 urteko espetxe zigorra eskatu zuen zinpeko epaimahaia Quintairosentzat, eta 300.000 euroko kalte-ordaina biktimentzat.



Ehunka herritarrek gaitzetsi zituzten bi emakume abadiñarren hilketak.



Muntsaratz auzoa.

Hauts beltzaren jatorria aztertzen dabilta

Muntsarazko airearen kalitatea neurtzen dabilta

ABADIÑO Itsaso Esteban Lehenago ere hainbat aldiz gertatu da Muntsaratz auzoko zorua —plaza, terraza zein errepedeak— hauts beltz batek zikinduta agertzea, baina duela bi asteakoa “gehiegizkoa” zela

iritzita, azterketa bat abiatu du udalak. Airearen kalitatea eta partikula kutsatzaileen jatorria ikertzen dabil Azterlan, udalaren eskariz. Azterketa horren emaitzak ezagututa, udalak “dagozkion neurriak hartuko” di-

tuela azpimarratu du Jose Luis Navarro alkateak.

Joan zen astean burutu zuten urriko osoko bilkuraren galdera eta eskarien tartean mahaigaineratu zuen EH Bilduk gaia, eta, asteon, Mikel Urrutia koalizioaren bozeroleak adierazi duenez, “ondo deritzogu azterketa egiteari, baina emaitzak jaso bitartean ezin gara ezelako erabakirik hartu barik egon”. Urrutiak “arazoari daukan garrantzia eman eta soluzio bat bilatu”

beharra dagoela dio. Gaia ingurumen arloko erakundeei helaraztea eskatzen du Abadiñoko EH Bilduk.

Urrutiaren berbetan, “ez da arazo esporadiko bat”, eta Navarrok ere adierazi du lehenago ere hainbat aldiz agertu dela Muntsaratz beltzuta. Aurreko aldi horietan kutsadura auzoan dagoen fundiziotik zetorrela ondorioztatu, eta enpresagaz hainbat neurri adostu zituen udalak, kutsadura ekiditeko helburuz.

R.P.S. 21406 A. Urreta podologia

Ainara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ **MAPFRE**

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

Azaroaren 10ean eguna, 19:00etan

PATXI LARRION IDAZLEAK FERIATZAILEAK NOBELA AUKEZTUKO DU

hitz artekalea, 23 durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#aurkezpena



Jesus Garatek izurtzan ekoizten du ardi gazta, Mugarra markakoa.

Munduko gazta sariketan parte hartuko du Garatek, lehenengoz

Donostiako Kurasaalean munduko gazten jaialdia egingo dute azaroan

IZURTZA Joseba Derteano Donostiako Kurasaal Jauregiak gaztaren inguruan munduan antolatuko den ekitaldirik garrantzitsuen hartuko du azaroaren 16tik 18ra: Euskadi-Basque Country Nazioarteko Gazta Jaialdia. Ekimen horren barruan, munduko gaztarik onenak sarituko dituzte Munduko Gazta Sariketan. Durangaldeko ordezkari zabala izango da, eta Jesus Garate izurtzarra da parte hartuko duenetako bat. Aurtengoa txapelketa horretara aurkezten

den lehenengo aldia izango da, eta "ilusioz" dagoela adierazi du. Bi ataletan aurkeztuko du

Munduko Gazta Sariketan mundu osoko 3.000 gazta inguru aurkeztuko dituzte guztira

Mugarra markadun gazta: ardi gazta onduaren atalean, eta gazta-ekoizle txikien atalean. Horrez gainera, gazta erakus-

ketan ere parte hartuko du, postua jarrita.

Guztira, 3.000 gazta inguru aurkeztuko dituzte txapelketa, eta Garatez gainera, Durangaldeko beste hainbat ekoizle ere aurkeztuko dira: Atxondoko Joseba Baseta, Otxandioko Andoni Padilla, Abadiñoko Pedro Martin Unzalu eta Eli Ingunza (Unzalu-Ingunza Txori-Errota ondasun erkidegoa), Aitor Urien, Durangoko Itsaso Barrenetxea eta Iurretako Jaio anaien Jaio Gaztak S.L. izango dira.

Bizkarra zaintzen ikasteko aukera, Mañarian

MAÑARIA M.O.

Santa Ursula nagusien elkarrekin antolatuta, bizkarra zaintzen ikasteko aukera dago Mañarian. Urrian hasi da ikastaroa, eta azaroan jarraituko du. Hain zuzen ere, hilaren 9an, 16an eta 23an. Arratsaldean burutuko da ikastaroa, 17:00etatik 18:30era bitartean, antolatzaileek azaldu dutenez.

Ikastaroan parte hartu gura dutenek jubilatuen egoitzatik pasatu behar dute izena eman ahal izateko.

20 lagun lanean, martxarako eta lasterketarako

GARAI M.O.

Domekan egingo dira Garaiko Triatloi Taldeak antolatzen dituen mendi martxa eta lasterketa, eta hoguei bat lagun ibiliko dira boluntario lez ekimena aurrera ateratzen dadin. Herritarren laguntza edukiko dute, beraz, bai ibilbidea osatzeko, bai jatekoa prestatzeko, esate baterako.

Mendi lasterketa nobedadea izango da; Asto Trail deitu diote, Astomendi tontorretik igarotzen delako.

SEI HANKAKO MAHAIA

JULIAN RIOS

SQ-2D



OHZ, "Oasiaren" prezioa

Diotenez, 40 urte ez dira ezer Horixe gertatuko zitzaion Bizkaiko Foru Aldundiari. Bere pasibotasunaren ondorioz, katastroa bere horretan geratu da lau hamarkadatan, eta orain di-da doitu nahi dute, euskal oasi idilikoari eutsi nahian. Errolda bat da katastroa, Aldundiak ondasunen inbentarioa egiten duena, bere ezaugarri eta prezioekin. Garrantzitsua da, balio hori oinarri gisa erabiltzen baita zenbait zergaren zenbatekoa kalkulatzeko: Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) eta udalak kobratzen duen plusbalioa.

Burbuila garaian eraikuntzak sortutako diru-sarreak nabarmen jaitsi dira, eta behea jota gelditu da udaleko diru-kutxa azken urteetan. Ondorioz, diru-sarreak hobetzeko tentazio bihurtu da OHZa.

Etxebizitza duina eta egokia izateko Eskubide Unibertsala jasota dago Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean, 25. artikuluan. Baita konstituzio askotan eta Eusko Jaurlaritzan onartu berri den Etxebizitza Legean ere.

Hauxe orain egin beharreneko galdera: zergatik igo dute hainbeste oinarriko ondasun hau, are gehiago lehen etxebizitza izanik? Ez litzateke hobe izango erreforma fiskal progresiboa eta berbanatzailea egitea, jendearen gerrikoa estutu beharrean?

Hobe gogoeta hori egin, beste hau esan beharrean: "dena ondo doa", edo "oasi zoragarri honetan ez da ezer gertatzen, ez murrizketarik, ez multinazionalen eraginik".

Euriak eragindako kalteak konponduko dituzte

Lau hilabeteko iraupena izango dute lanek

BERRIZ M.Zuazubiskar

Otsailean eta martxoan Durangaldean egon ziren euriteek hainbat lur-jausi eragin zituzten Berrizko lurretan.

Kalte horiek konpontzeko asmoz, hainbat lan egingo di-

tuztela jakitera eman du Berrizko Udalak, asteon. Esaterako, Andikoagoiti landa-gunearen sarbidean, Errotazar baserrira doan errepidean eta Oka errekararen ondotik doan bidean egingo dituzte lanak. Gune ho-

rietan, errepideak konpondu eta lurra egonkortuko dutela adierazi dute.

Lan horiez gain, Asua-Berroita bidea konpontzeko ere aprobeztatuko dutela jakinarazi dute.

Lau hilabeteko iraupena

302.350 euroko kostua duten lan hauek lau hilabete burutzea aurreikusi dute, eta kostuaren %90 Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzagaz egingo dutela jakinarazi dute.



Euriteek Berrizen eragindako kalteak.

DURANGALDEA ASTEON

Otxandioko margo lehiaketa, domekan

OTXANDIO > XXVI. margo lehiaketa egingo dute, azaroaren 6an, Otxandion. Lau sari egongo dira jokoan, lehiaketan: 500 euroko lehenengoa, 350 euroko bigarrena, 200 euroko hirugarrena eta 150 euroko herriko saria. Egun berean, 10:00etatik 14:00etara, umeen margo tailerra ere egingo dute, Kontseilupean.

Lanzarotera joan da Fitoren motorra

DURANGO > Fito musikariak emanda, Harley Davidson bat zotz egin zuten La Cuadri del Hospi elkarteko kideek Gernikan, urriko azken asteleheneko jaietan. Sare sozialetan zehaztu dute txartel irabazlea internet bidez, Lanzaroten saldu zela. Beraz, hara joango da Fitoren Harley Davidson motorra.

Berrizen abesbatza herrikoia sortuko dute

BERRIZ > Herrian abesbatza berri bat sortzeko irrikaz daude hainbat berriztar, eta abestea gustatzen zaien guztiei deia egin diete beraiekin kantatzera animatu daitezten. Hamabostero batuko da kantuzale taldea, ordubetez, Berrizko Kultur Etxean. Lehenengo hitzordua azaroaren 8an izango da, 20:00etan.

IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.



Miren Gallastegi | EHUko doktorea ingeniari-tza kimikoan | Durango, 1988



“Zabor larregi sortzen dugu, horixe da dugun arazo larrienetariko bat”

Hiri hondakin solidoak erraustean kutsatzaile gutxiago isurtzeko katalizatzaileen aukera ikertu du

> BERBAZ Aitziber Basauri
EHUko doktore Miren Gallastegik Hiri Hondakin Solidoen (HHS) erraustegietan teknologia katalitiko erabiltzeko aukera aztertu du, kutsatzaile horien isurketak modu eraginkorragoan murrizteko. Nitrogeno oxidoak (NOx) eta dioxinak aldi berean deuseztatzeko aukera ikertu dute.

Zertan datza ikerketa?

Hiri Hondakin Solidoen (HHS) erretzerakoan, eta nahiz eta konbustio hori kontrolatua izan, halabeharrez zenbait konposatu sortzen dira —nitrogeno oxidoak eta dioxinak, besteak beste— eta kutsatzaile horiek tratatzeko prozesu ezberdinak daude erraustegietan. Halere, badakigu gero eta neurri murriztaileagoak jasoko dituela legediak. Horren aurrean, teknologia katalitikoan aldaketa txiki bat egitea proposatzen dugu; aldaketa txikia, baina, aldi berean, handia.

Zein da aldaketa hori?

Erraustegietan badarabilten teknologia katalitiko erabilita, ez litzateke inbertsio handi-

rik egin behar. Eta, aldi berean, aldaketa handia izango litzateke, dioxinetarako metodo suntsitzaile bat ere proposatzen dugulako. Teknologia katalitiko erabiltzen duten erraustegietan ikusi dute NOx-ak deuseztatzerakoan dioxina kontzentrazioa ere jaisten dela. Baina, horren zergatia ez da ikertu. Teknologia katalitiko NOx-ak eliminatzeko dago optimizata, ez dioxinak eliminatzeko. Prozesu berean, NOx-ak eta dioxinak %100ean eliminatzea lortu gura du ikerketak.

Teknologia katalitiko erabiltzen da gaur egun konposatu kutsatzaileak tratatzeko?

Bai, Espainian hamar erraustegietan erabiltzen dute teknologia hori —Bilboko Zabalgarbin ez dute horrelakorik, baina jartzea aurreikusi dute—. Orain arte, konbustio galdean, 800 gradutik gorako tenperaturan amoniakoa botata bihurtu izan dituzte NOx-ak Nitrogeno. Hori, baina, ez da ehuneko ehuneko eraginkorra. Izan ere, NOx-ak isurtzen dira oraindik ere; beti ere, legeak baimendutako neurrian.

Teknologia katalitikoagaz, galdean beharrean, tximinian jarritako katalizatzaile batean isurtzen dute amoniakoa, eta prozesua eraginkorragoa da.

Dioxinak, baina, ez dituzte suntsitzen.

Ez. Gaur egun, ikatz aktibozko iragazkien gainean harrapatzen dituzte dioxinak, eta horiek, gero, kudeatu eta tra-

“*Prozesu berean NOx-ak eta dioxinak eliminatzea lortu gura du ikerketak*”

“*Batzuen ustez, errausketa errebalorizazio modua ere bada*”

tatu egin behar dira. Iragazki hori kendu, eta dioxinak oxidatzeko aipatutako katalizatzaile aprobetxatzea proposatzen dugu. Dioxinak deuseztatze metodo suntsitzailea litzateke hori.

Bi prozesuak bateratuko lirateke horrela?

Bai. Laborategian baieztatu dugu teknologia katalitikoan aldaketa batzuk eginda, bi prozesuetan posible dela eraginkortasuna handitzea. Ikusi dugu erraustean NOx-ak eta dioxinak batera deuseztatze aukera badagoela, eta ikertzen jarraitu behar dela.

Noiz hasi zenuten ikerketa?

2011n hasi ginen, eta jarraitzen dugu. Laborategian sortutako erraustegi txiki batean egin ditugu proba guztiak, egoera ia ideal batean. Hurrengo pausoa sistema gas erreale bategaz probatzea litzateke. Adibidez, Zabalgarbik sortzen duen gasa hartuta. Emaizta onak lortuz gero, teknologia katalitiko duen erraustegi batean probatu gura genuke. Oraindik, baina, lan handia dago atzetik.

Erraustegiek eztabaida sakona sortu dute gizartean. Zer iritzi duzu zuk honetaz?

Ez naiz erraustegiak eraikitzearen aldekoa, dena erretzearen aldekoa. Baina, ingurumenarekiko errespetagarriagoak diren beste teknologia batzuek —birziklatzeko balioa berriz emateko, berrerabiltzeko...— arazo bat dute: beraien eraginkortasuna neurri batera artekoa dela: ezin dituzte tratatu gizartean ditugun era askotariko hondakinak. Horrez gainera, errefusa sortzen da: esaterako, plastikoa birziklatzen denean, beti sortzen da solido bat, birziklatu ezin dena. Zer egingo dugu horregaz? Zaborraren kudeaketa integrala egin behar dela uste dut, eta horixe diote Europatik datozen dekretuek ere.

Zertan datza zaborraren kudeaketa integrala hori?

Lehenik eta behin, zaborra sortzea ekidin behar da. Zabor larregi sortzen dugu, horixe da gaur egun dugun arazorik larrienetariko bat, nire ustez. Hurrengo pausoa berrerabiltzea litzateke, eta erabili ezin dena birziklatzea. Birziklatu ezin denari balio berria ematea etorriko litzateke gero. Azken mailan leudeke errausketa edo isurketa. Batzuen ustez, errausketa errebalorizazio modua ere bada.

Nola da hori?

Erretzerakoan sortutako beroagaz erraustegian argindarra sortzen delako. Argindarra sortzeagaz ados nago, baina, hobe litzateke kutsatzaileak sortu gabe ematea balio berri hori. Hala ere, erraustegien aldeko joera gorakoa da, eta hori horrela izatearen arrazoirik garrantzitsuen energia elektriko sortzea da. Horrez gain, egia da baita ere zabor asko sortzen dela, eta bestelako aukerak errefusa sortzen dutela. Beraz, uste dut erraustegiak egon egongo direla. Erraustegiak desagertzea ezinezko ikusten dut. Hasteko, hainbeste zabor ez sortzeko lan egin beharko genuke, eta asko dago ikertzeko birziklapena, berrerabilpena... sustatzeko teknologian, oraindik muga asko ditu eta. Baina, tamalez, beti egongo da zati bat birziklatu ezin dena. Horren aurrean, errausketan ikertzea ere beharrezko ikusten dut, ingurumenagaz errespetagarriago izan dadin, hain zuzen.

Barrea eta emozioa sortzera dator 'Kaput', gerra eta errefuxiatuen gaia taularatuta

Ganso&Cia konpainiak familientzako antzezlan berria estreinatuko du asteburu honetan, San Agustinen



Protagonistak eta antolatzaileak, eguaztenean, antzezlanerako prestatutako autoaren alboan.

> KLOWNA Markel Onaindia
"Klownak, normalean, beti dira galtzaileak, eta errefuxiatuek ere txartel guztiak dituzte galtzaile izateko". Gorka Gansok antzekotasuna ikusi du klownen eta gerretatik ihesi datozenen egoeran, eta hain zuzen ere, horixe da Ganso&Cia konpainiaren lan berriaren ardatzetako bat. Transgresioaren bidez, "barrenak astintzea" lortu gura dute. Edozelan ere, "baikortasunetik eta barretik"

landu gura dute gai latz hori, umorea baita euren antzerki estiloaren oinarria. Beraz, barrea eta emozioa sortzera dator *Kaput* deitu duten lana, bihar eta etzi San Agustin kulturgunean estreinatuko dutena, 18:00etan.

Gorka Gansogaz batera, Txefo Rodriguez igoko da taulara, edo, hobe esanda, antzezpenerako prestatu duten auto zaharrera. "Oso harro nago aintzat hartu nautelako". Zuzendaritzarako, Jimena Cavaletti argenti-

narraren ekarpena eduki dute, Topaklownen irakasle lez aritu izan dena, eta Cecilia Pagani-



JIMENA
CAVALETTI

ni -Ganso&Cia bikotea osatzen du- ere ibili da sorkuntzan zein zuzendaritzan.

Cavalettiren ustez, familia osoari begira sortu duten lan honetan, "umeek freskotasunagaz konektatuko dute, eta helduek sakoneko gaiagaz ere bai".

Hurbiltasuna

Asteburu honetako saioen amaieran, ikusleek protagonistei galderak edo ekarpenak egiteko aukera egongo da. "Klownak hurbiltasuna dauka, eta horregatik, jendearen kontrastea garrantzitsua iruditzen zaigu",

esan du Gansok. Urtarriletik aurrera, hogeit bat emanaldi lotuta dauzkate dagoeneko, Euskal Herrietik zehar. Kanpoan ere ez zaie aukerarik faltako ziurrenik.

Durangotik mundura

Durangoko San Agustin kulturgunean finkatutako konpainia da Ganso&Cia, klownaren uni-bertsoa herrian txertatu duena. Antzezlanen aparte, Durangon egiten diren Topaklown eta Maluta jaialdiak eurek antolatzen dituzte. Eguaztenean egindako aurkezpenean, Mari Jose Balier zinegotzia eta aretoko lehendakaria ere egon zen, eta baieztatu zuen aurten ere burutuko dela Maluta jaialdia Gabon bueltan, iazko lehen edizioaren atzetik. Horri lotuta, "konpainien eta instituzioen arteko batasuna" nabarmendu zuen Paganinik, eta horren alde lan egiteko deia egin zuen gainontzeko herri eta hirietan ere.

Kaletik datozen aktoreak dira Ganso&Cia-koak, baina *Kaput* areto barrurako prestatu duten bigarren lana da. Mimo handiz, urtebetetik gora eman dute ideia errealtate bihurtzen, eta asteburuan ikusiko du argia, ikusleak barrez eta emozioz zipriltintzeko asmoz.

Hamar ikuskizun

Azaroa eta abendua kulturaz beteta datoz. Hamar ikuskizun eskainiko dituzte San Agustinen, hamabost emanalditan; *Kaput*-egaz hasi, Banarteren *Dudas Reasonables*-egaz jarraitu, *Txiki Txiki Txikia* jaialdia, *Mami Lebrum*, *Francoren bilobari gutuna*...

Bihar erabakiko da azken kanporaketa, Zaldibarko Olazar frontoiko saioan

Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren bosgarren kanporaketa da Zaldibarkoa

> BERTSOLARITZA I. Esteban
Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren udazkeneko faseko bosgarren eta azken kanporaketa saioa jokatu dute, bihar, 17:30ean, Zaldibarko Olazar frontoian. Beñat Romero zornotzarra dago saio horretan parte hartuko duen seikotean, eta Beñat Vidal, Eneko Arrate, Igor Menika, Nerea Ibarzabal eta Peio Ormazabal bertsolariak ere arituko dira bertan.

Saio horretan punturik gehien batzen dituen bertsolariak azaroaren 19an Markinako

lehenengo finalurrekoan kantatzeko aukera eskuratuko du.

Txaber Altube abadiñarra izan zen Durangaldearen ordezkaria urriaren 30ean Leioako kultur auditoriumean jokatu zuten aurreko kanporaketan, eta 461 puntu eskuratu zituen. Ibon Ajuriagojeaskoa gernikarrak irabazi zuen saioa, 483 puntugaz, eta hirugarren sailkatu zen Altube gazte abadiñarra.

Aurreko kanporaketak irabazita, Miren Amuriza, Eneko Abasolo *Abarkas* eta Beñat Ugartetxea Durangaldeko ber-

tsolariak lehendik daude sailkatuta finalurrekoetan aritzeko. Hiru finalurrekoak irabazten dituztenek eta saio horietan punturik gehien biltzen dituzten bost bertsolariak jokatu dute Txapelketaren finala, abenduaren 17an, Bilbon.

Beñat Romero zornotzarra dago Zaldibarko kanporaketan kantatuko duen bertsolari seikotean



Ibon Ajuriagojeaskoa gernikarrak irabazi zuen urriaren 30eko kanporaketa.



Bogoroditsie abesbatzako kideak gogoz daude musika egiten jarraitzeko.

Urteurren kontzertua eskainiko du Bogoroditsie abesbatzak

Hogei urte betetzen dituztela ospatuko dute zapatu honetan, Andra Marian

> MUSIKA A. Esteban Bogoroditsie abesbatza Durango jaio zen, orain dela hogei urte. Ospatzeko, kontzertu berezia eskainiko du zapatu honetan,

Andra Marian, 20:00etan. Urte hauetan, “denetarik egon da: momentu onak, momentu txarrak, proiektu asko, ia geldituta egon garen denbora bat ere izan

dugu”, aitortu du abesbatzako kide den David Romanek. “Bogoroditsie abesbatzan hasi ginean, hogei bat urte geneuzkan, eta orain berrogei. Denbora

honetan, bizitza bezala, dena aldatzen joan da” aipatu du.

Zapatuko kontzertua berezia izango da. “Sorpresa bat izango da, baita geuretzat ere”, adierazi du Romanek. Ion Ugarrizak, taldeko zuzendariak, bost lan propio aurkeztuko ditu, abesbatzaren erreperitorio ohiari gehituko zaiena. “Publiko orori zuzendutako kontzertua izango da, eta Andra Marira ahalik eta jenderik gehien joatea gura dugu”. Inoiz abesbatzaren parte izandako guztiei gonbit egiten diete ekitaldi amaieran Madinaren *Aita Gurea* abestera.

Ospakizun honen ondoren, Ez dok hamairu taldeari egingo zaion omenaldian —Musikaste-k antolatutakoa— parte hartuko dute. Azaroaren 22an Iruñean, eta 27an Donostian. “Datorren urtera begira, sortuko dira proiektuak, guk musika egiten jarraitu gura dugu eta”.

“Gaur egun hogei lau bat pertsonak osatzen dugu abesbatza, eta urte askoan hamabi bat baino ez gara izan. Etorkizuna egon badagoela uste dut, eta gogoz gaude jarraitzeko”, onartu du abesbatzako kideak.

GEURE DURANGALDEA

GARAZI MUGARZA MARKINA
Ikaslea



Ni hegemonikoa

Asteazkenero nazioarteko ikasleak biltzen dituen festa bat antolatzen da hemen, aste-oro leku desberdin batean eta gehienetan diskoteken antzeko lokaletan. Ez naiz oso zalea, baina lehen asteazken hartan animatu egin nintzen. Jende gehiegi zebilen bultzaka atean, hurbildu eta berehala jabetu nintzen: sexuaren araberako ilara bi daude, eta neskek ez dute sarrera ordaintzen.

Haserretu egin nintzen ordaindu beharrik izan ez zutelako pozak zorutzen zeuden lagunekin, “zergatik kexatzen zara ez baduzu ordaindu behar” bakoitzarekin, eta batez ere neure buruarekin, azkenean sartu egin nintzelako. Umiliatuta sentitzen nintzen, ondo ikasia nuen arren produktuegatik ordaintzen ez baduzu, orduan produktua zeu zarena. Barruan gertatzen zena imajina dezakezue, nesko doako haragia gara halako lekuetan, eta esan diezazueket gauza gutxi ematen didatela horrek baino nazka handiagoa.

Duela hiru hilabete inguru, BERRIako udako seriean elkarrizketa interesgarria egin zioten Sustrai Colinari (irakurketa gomendatzen dizuet). Bertsolariak dio errazegi jotzen dugula geure burua feministatzat, baina garrantzi itzela duela batzuetan geu ere hegemonikoak garela oharzteak.

Eta hala da; zaila, mingarria eta deserosoa da fazeta ilunak agerian uztea, erosoagoa delako urtean hirutan protestatu, eta ostantzean ez ikusiarena egiten jarraitzea. Baina, arren, utzi iezadazue esaten ordutik ez dela egunik pasa patriarkatuaren doako produktu izateko neure burua saldu nuela sentitu gabe.

Sarrionandia, Habanako unibertsitateko irakurle

Joseba Sarrionandia idazle iurretarra izango da Habanako euskal institutu berriaren arduraduna

> HEZKUNTZA Itsaso Esteban Etxepare Euskal Institutuak euskal kultura irakurletza berria zabaldu du Kubako Habana hiriburuan, eta Joseba Sarrionandia idazlea (Iurreta, 1958) izango da bertako irakurlea. Sarrionandiak zehaztuko ditu programa akademiko horren edukia eta gainerako ekintzak ere. Etxepare Institutuak eta Habanako Unibertsitateak 2015ean sinatu zuten lankidetzaz hitzarmenari esker hasi da Euskara eta Euskal Kultura irakurletza berria martxan.

Azaroaren 22an, *Euskara hizkuntzaren historia* ikastaroagaz ekingo diote programari, eta zehaztu dituzte urte amaierara arte egingo dituzten beste hainbat ekintza ere: abenduaren 5ean, esaterako, *Amama* filma aurkeztuko du Asier Altunak Habanako unibertsitatean.

Programa eta ekintza akademiko horien osagarri, Habanako euskal kultura ikertu gura dutenei hainbat baliabide ere eskainiko dizkie Etxepare Institutuak Habanan: euskal biblioteka eta zineforuma, adibidez.

Aldizkari literario herrikoia bat sortuko dute Sorginola Gaztetxeko Ateneoan

Urte amaieran argitaratuko dute lehenengo alea; literaturzaleak testuak bidaltzera animatu dituzte

> LITERATURA Aimar Esteban Sorginola Gaztetxeko Ateneo proiektu literarioa aldizkari herrikoia bat prestatzen ari da. “Taldea sendoa sortu denez, urtean zehar lantzeko zerbait prestatu gura genuen, iraunkortasuna duen zerbait”, adierazi dute Ateneoko partaideek.

Ipuinek, mikroipunek, olerkiek, antzerki laburrek, elkarrizketek, komikiek zein hausnarketek izango dute aldizkari berri horretan lekua, eta sinatu-

ta zein modu anonimoz argitaratuko dituzte.

Lanak honako helbide honetara bidaltzera gonbidatu dituzte parte hartu gura duten guztiak: sorginolakoateneoa@gmail.com. Paperean argitaratuko dute aldizkaria, eta lehenengo alea urte amaiera honetan kaleratzea espero dute. Oraindik ez dakite zehazki zenbatero kaleratuko duten aldizkaria, baina, “hasiera batean, hiruhilekoa izatea” gura dute.

Kaput
Ganso&Cía

Azaroaren 5ean, 18:00etan
Azaroaren 6an, 18:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustín KULTUR GINEA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA
EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

AZAROAK 4
22:30ean
ETXE
KONTZERTUA

URRIAK 9
19:30ean
KOLDO IZAGIRRE
BERBALDIA

AZAROAK 10
20:00etan
LABORATTEGHIA
KONTZERTUA

EDERTASUN GIDA



Jon Sopelana. Lunik.

Fashion Gaua

Zelan joan zen Fashion Gaua?

Modelo bakoitzaren janzkera eta ezaugarriei egokituz egin genuen lan pasarelan. Beti produktu naturalekin, eta norbere edertasuna indartuz. Estilo ugari landu gura izan genituen: uhinak, trentzak, ile bilduak... Lan handiko eguna izan zen, baina poztu ginen hainbeste jendegaz lan egin ahal izateagatik, baita gure lana pasarelan ikusteagatik ere. Goraipatu beharra dauzkat nire lankide Laurak eta Jenniferrek egindako orrazkera eta makillajeak. Modaren inguruan zertan gabiltzan erakusteko eta bezeroei aholkua emateko aukera izan zen.

Aholkua emateko prest zaudete luniken.

Zure ile edo buruazalaren inguruko zalantzarik baduzu, etorri eta galdetu, aholkua emango dizugu eta. Gure ikuspuntua azaltzeko prest gaude beti, edertasun osasuntsuaren ikuspegitik, hain zuzen ere. Estetikan, neska zein mutilentzat zerbitzu ugari eskaintzen dugu; adibidez, bizarra kentzea edo konpontzea azalarekiko begirunez egiten dugu; azkenaldian asko gabiltza horretan.



ILE-APAINDEGIAK



ESTETIKA ZENTROAK



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Euskal Herriko jazz eta blues eszenak beteko du Elorrioko Ateneoa

Azaroaren 10ean hasiko da zazpi proposamen dakartzan XXVII. Arriolako Jazz eta Blues jaialdia

> MUSIKA Itsaso Esteban
Zazpi hitzordu dakartza Elorriora Arriolako Jazz eta Blues jaialdiaren XXVII. edizioak, datorren eguenetik aurrera. Petti musikari nafarrak Etxeko Uzta taldeko lagunekin eskainiko du egitarauko lehenengo kontzertua, azaroaren 10ean. Joseba Irazokik, eta Igor eta Iñigo Telletxeak osatzen dute Pettiri laguntzen dion Etxeko Uzta hirukotea. Hain justu ere, bertoko uzta oparoa izango da, aurten, Elorrioko jaialdian: Euskal Herriko jazz eta blues eszenaren erakusgarri dira programatu dituzten kontzertu gehienak.

Boney Fieldsen Chicagoko tronpetistak ekarriko ditu atzerriko haizeak Elorrioko Jazz Blues jaialdira

Pettiren ahots urratuak eta bere gitarrak gidaturiko blues, rock eta folk emanaldiaren ostean, Juan de Diego Trio taldearen doinuek jazz klub bihurtuko dute Ateneo (azaroaren 11n). Duela bi hamarkadatik Bartzelonon bizi da De Diego tronpetari bilbotarra, eta bi musikaririk lagunduta arituko da Elorrion.

Beste tronpetari bat izango da jaialdira atzerriko haizeak ekarriko dituena: Chicagon jaio eta Parisen bizi den Boney Fieldsen, hain zuzen ere. Blues, funk eta rocketik gertu dauden doinuek eskainiko ditu.

Euskal Herrian sorturiko proiektuak dira jaialdian entzungai izango diren gainontzekoak: Musikene ikastegian sortutako The Machetazo 5tet, The Allnighter eta Muchachos Afrobeat Band gasteiztarrak, edo Portalekua tabernan jaialdiko azken kontzertua eskainiko duen Azkaiter Pelox boskotea.



Joseba Irazoki eta Igor eta Iñigo Telletxea musikariek lagunduta arituko da Petti Ateneoko kontzertuan.

- ATENEOAN -

Azaroaren 10ean, 21:30ean,

· PETTI & ETXEKO UZTA

Azaroaren 11n, 22:30ean,

· JUAN DE DIEGO TRIO

Azaroaren 12an, 21:30ean,

· THE ALLNIGHTERS

Azaroaren 17an, 21:30ean,

· MUCHACHOS AFROBEAT BAND

Azaroaren 18an, 22:30ean,

· THE MACHETAZO 5TET

Azaroaren 19an, 22:30ean,

· BONEY FIELDS BAND

- PORTALEKUA TABERNAN -

Azaroaren 20an, 20:30ean,

· AZKAITER PELOX



Bluesa, funka eta rocka uztartuko ditu Boney Fieldsenek bere emanaldian.

Antzerki amateurra protagonista Abadiñoako II. Antzerkiño jaialdian

Azaroko lau zapatutan, Errota kultur etxean izango dira jaialdiko emanaldiak

> ANTZERKIA Itsaso Esteban
Azaroko lau zapatuetan izango diren lau antzerki emanaldik osatzen dute II. Antzerkiño jaialdiko egitaraua. Azaroaren 5ean, bihar, izango da lehenengo hitzordua: *Contigo aprendí* izenburuko antzezlan eskainiko du

Zallako Antifaz taldeak.

Eneko Etxebarria kultura zinegotziak eta jaialdiaren antolakuntzan jardun den Rafa Herce Banarte antzerki taldeko kideak eman zituzten, eguazteenan, Euskal Herriko antzerki talde ez profesionalen ikuski-

zunak dakartzan jaialdiaren inuruko azalpenak. Antzerkiño jaialdiaren bigarren edizioa egitaraua, "abadiñoarrei ahalik eta eskaintza bariatuena egiteko helburuagaz" sorturikoa dela azpimarratu zuen Etxebarriak.

2011n egin zuten Antzerkiño

jaialdiaren lehenengo edizioa, eta antzerki talde profesionalen emanaldiak programatu zituzten orduko hartan.

Hainbat urtez jaialdia antolatu barik egon ostean, Rafa Herce azaldu duenez, Abadiñoako jaialdi hori hemendik aurrera talde amateurrentzako oholta izatea erabaki dute. Izan ere, Herceren berbetan, "herritarrek kudeaturiko talde horietan garatzen baita antzerkizaletasuna eta sortzen baitira antzerkigileak". Eta, hain zuzen ere, talde horiei oso zail egiten zaie sarritan beraien antzezlanak euren herritik kanpoko aretoetan erakustea.

Banarte antzerki taldeak bezala, Bizkaiko eta Gipuzkoako beste herri batzuetan herritarren artean antzerkizaletasuna bultzatzen diharduten lau talde gonbidatu dituzte II. Antzerkiño jaialdian aritzera; Zallako Antifaz, Ortuellako Teatro Fierabrás, Altsasuko Tarima Beltza, eta Arrasateko Doke antzerki taldea, hain zuzen ere.

Zalla, Ortuella, Altsasu eta Arrasateko antzerki taldeak gonbidatu dituzte jaialdian parte hartzera

Contigo aprendí komedia eskainiko du Antifazek, "ar jaio direlako eskubide guztien jabe direla uste duten gizonen kontrako lana"; Edgar Allan Poeren testuen *In vino veritas* izenburuko irakurketa dramatizatu eta musikatu Teatro Fierabrás taldeak; *Falstaff no cree en la otra vida* tragikomedia satirikoa Tarima Beltza taldeak; eta XX. mende erdialdean kokaturiko *Aingeru ala kurriloi?* izenburuko istorioa Arrasateko Doke antzerki taldeak.

Errota kultur etxean izango dira lau emanaldiak, 20:00etan, eta 5 eurokoa izango da sarrera.



Arrasateko Doke antzerki taldearen 'Aingeru ala kurriloi?' obragaz amaituko da, azaroaren 26an, II. Antzerkiño.

Azaroaren 5ean

· Antifaz antzerki taldearen CONTIGO APRENDÍ

Azaroaren 12an

· Teatro Fierabrás taldearen IN VINO VERITAS: TRIBUTO A EDGAR ALLAN POE

Azaroaren 19an

· Tarima Beltza taldearen FALSTAFF NO CREE EN LA OTRA VIDA

Azaroaren 26an,

· Doke antzerki taldearen AINGERU ALA KURRILOI

Bigarren urtez jarraian, mendi igoeren txapelketa irabazi dute Tarsiciok eta Peñak

Arrasateko igoeran lortutako bigarren postua nahikoa izan zuten iazko lorpena errepikatuzeko



Iban Tarsicio ezkerrean, garaipena ospatzen; eskuman Igor Urien, Udalan turismoetan hirugarren amaitu ostean.

> AUTO LASTERKETA J.Derteano Iban Tarsicio pilotu abadiñarrak eta Iñigo Peña kopilotu atxondarrak mendi igoeren Euskadiko txapelketa irabazi dute Mitsubishi EVO IX-aren bolantean. Bigarren urtez jarraian lortu dute txapelketa euren-

ganatzea. Amaitu berri duten denboraldiaren “oso balorazio positiboa” egin du Tarsicio abadiñarrak.

Joan zen asteburuan bigarren amaitu zuten Arrasaten, Udalako igoeran. Postu horregaz batutako puntuak nahikoa

izan ziren txapelketa segurtatzeko. Igoera berria izan zen, ibilbide labur batez; eta bost txandagaz, hirugaz barik: “Ibilbidea polita zen, asfalto ona zuen, eta jende asko batu zen lasterketa ikustera”, gogoratu du pilotu abadiñarrak.

Rallysprint txapelketa

Aurten hirugarren amaitu du Euskadiko Rallysprint Txapelketa. Iaz bigarren sailkatu zen. Azken urteetan ate joka dabil, baina errematea eman ezinik. Aurten lasterketa bitan arazo mekanikoak izan ditu, eta ho-

rrek aukerarik barik utzi zuen txapelketako azken txanpan. Hala ere, datorren urtean berriro saiatzeko gogoz dago: “Aurten zorte txar apur bat izan dugu, baina badugu txapelketa hori irabazteko ilusioa. Oraindino ez dugu lortu, baina datorren urtean berriro ahaleginduko gara. Eskerrak eman gura dizkiet gure babesleei eta Hirumet enpresari, urtero posible egiten dutelako gu hor egotea”.

Eskualdeko pilotuak modan Aurtengo denboraldian protagonismo berezia izan dute eskualdeko pilotuek. Izan ere, gororatu beharra dago Enrique Barretxea-Arando pilotu zaldibartarrak eta Anartz Onandia kopilotuak irabazi dutela Euskal Herriko Rallysprint Txapelketa.

Eurekin batera, belaunaldi berriak ere zeresana ematen ari dira: Igor Urien abadiñarra, esaterako, podiumera igo zen Udalako igoeran, turismoetan. Kepa Amantegi durangar gazteak ere behin baino gehiagotan eman du bere dohainen berri.

Urteetan merezitako prestigioa eta errespetua batu dituzten pilotuak ere ezin daitezke ahaztu, Jose Ignacio Erdoiza ‘Lebeiti’ delarik talde horretako adibide argienetako bat. Beraz, datozen urteetan Durangaldeko pilotuak auto lasterketetan protagonista izango direla ematen du.

Emakumeen lasterketan batutako dirua Andraguneari emango diote

Bost kilometroko lasterketa Durangon izango da, azaroaren 26an

> HERRI LASTERKETA J.D. Azaroaren 25a Emakumeengana indarkeriaren Kontrako

Nazioarteko Eguna da, eta egun horregaz bat egiteko asmoz, Emakumeen Lasterketa antola-

tu dute Durango Kirol taldeak eta Durangoko Udaleko Berdintasun Sailak elkarlanean, azaroaren 26rako. Emakumeek bakarrik parte hartu dezaketen lasterketa da.

Azaroaren 25era arte egin daiteke izen-ematea www.herrikrosa.eus izeneko webgunean

Proba solidarioa da, eta izen-emateagaz batutako dirua—gastuak kenduta— Andraguneari emango diote. Izen-ematea 10 euro da (kamiseta barne), eta azaroaren 25era arte dago zabalik www.herrikrosa.eus web-

gunean. Era berean, azaroaren 21etik 25era ‘Emakumeengana indarkeriarik ez’ dioen pegatina eskuratzeko aukera egongo da euro baten truke, Andraguneari. Pegatinekin jasotako diru guztia ere Andraguneari izango da.

Azaroaren 25eko nazioarteko egunaren harira, “geuk ere gure ekarpena egin gura izan dugu, eta dakigun moduan egin dugu, lasterketa bat antolatuz”, azaldu du Juan Sampedro Durango Kirol Taldeko arduradunak.

Lasterketa 17:00etan hasiko da. Ezkurdin izango ditu irteera eta helmuga. Atletismo-pistaren atzealdeko bidegorritik, Fray Juan de Zumarraga kaletik, eta Askatasun etorbideetik diseinatu dute 5 kilometroko ibilbidea.

Lasterketa irekia

16:55ean beste lasterketa bat hasiko da, laburra eta ez lehia-korra, gura duten denentzat irekita egongo dena, gizon zein emakume. Seme-alabekin egiteko modukoa izango da.

Presion Break eta Sasikoa, puntu beharrean daudenen derbia

> ARETO-FUTBOLA J.D.

Sasikoa Durango eta Berrizko Presion Break taldeek espero baino pattalago hasi dute denboraldia. Puntuen beharrean daudela jokatu dute talde biek derbia domekan, 12:00etan, Berrizko kiroldegian.

Hirugarren Mailan 14 talde dabilta, eta Presion Break eta Sasikoa 11. eta 12. tokietan kokatuta daude, hurrenez hurren. Berrizko taldea golegile dabil (24), baina gura baino gehiago jaso ditu: 26. Sasikoari, bere aldetik, kosta egiten zaio arerioaren atea zulatzea: 13 gol.

Hirugarren Mailan indartsu dabilena Elorrioko Buskanta da. Lider daude orain arteko denak irabazita, eta 42 gol sartu dituzte sei partidutan.



Emakumeek bakarrik parte hartu dezakete lasterketan.

Durango Nissan-Gaursari puntu baliotsuek ihes egin diote partiduetako azken minutuetan

Taldearen gaztetasuna eta aurkarien esperientzia izan daitezke arrazoiak Oskar Astarloaren ustez



Durango Nissan-Gaursa gizonen talde nagusia, Durangon egin zuten aurkezpenean.

> ERRUGBIA J. Derteano
Durango Nissan-Gaursa gizonen talde nagusiaren aurtengo helburua Ohorezko B Mailako aurreneko seiren artean sailkatzea da, modu horretara igoera fasea jokatu ahal izateko. Ligaren herenera heltzeaz daudela, markatutako bidean daude, zazpigarren tokian, baina, aldi berean, gorago egoteko aukerak al-

ferrik galdu dituzten sentsazioa ere ezin dute ezkutatu. Partidu batzuetan, azken 10 minutuetan loturik ematen zuten puntu batzuek ihes egin diote: "Asko barkatu dugu, defentsan akatsak izan ditugu, eta puntu dezente utzi ditugu bidean", azaldu du Oskar Astarloa entrenatzaileak.

Horren adibide bat Bera Bera taldearen kontrako neurketa da.

Partiduko zati handiengan aurretik joan ziren ligako talderik indartsuenetakoren kontra, baina bigarren zatian "lo irten" zirela onartu du Astarloak, eta azkenean galdu egin zuten: 15-19.

Burgosen kontrako liga estreinaldia da beste adibide bat. Gaurko liderraren aurka "partidu ona" egiten eta 12-20 irabazten zebiltzan, harik eta azken

minutuetan Burgosek partidua irauli zuen arte: 28-20: "Partiduek 80 minutu irauten dute, eta amaitu arte topera ez bagaude, horrelakoak gertatzen dira".

Gaztetasuna izan daiteke arazoa ulertzeko gakoetako bat, Astarloaren ustez. DRTk jokalaria gazteak ditu, eta esperientzia inportantea da partiduetako azken txanpetan. Postu garrantzitsuetan hainbat baja ere izan dituzte: Iker Zabalak eta Mikel Blancok, esaterako, ezin izan dituzte azken partidu biak jokatu.

Zapatu honetan, 18:00etan, Eibar taldeak bisitatuko du Arripauseta, eta Blanco jokatzeke moduan egon daiteke. Ligako azken aurreko sailkatuaren kontra garaipena bakarrik dute buruan. Izan ere, markatutako helburuen barruan daude; lau puntura dute seigarren postua. Errugbian puntuak ez baitatoz garaipenetik bakarrik: lau puntu batu dituzte entsegu kopuruengatik edo puntu gutxi- ren aldeagaz galtzeagatik.

ADITUAREN TXOKOA

UNAI ZAMALLOA
Saskibaloia



Umeen mailan: 5X5, 3X3...

Umetxoan mailan horrela arituko gara aurtun. Atzekoz aurrera jantzita. Zergatik diot hau?

Aurreko denboraldian, umetxoan talde guztiak 3x3 aritzen ziren, Eskola Kirolak eta Bizkaiko Saskibaloia Federazioaren ustetan, denen parte hartzea eta bakoitzaren joko garapena lantzeko ezinbestekoa zirela-eta. Eta, egia esan, ume askok zein ume gutxiak osatzen zituzten talde guztiek parte hartu ahal izan zuten. Izan ere, aurreko denboraldietan, 8 ume baino gutxiagoko taldeak ezin ziren txapelketan sartu.

Egia esan, hasieran ez nintzen guztiz ados egon, baina denboraldia aurrera joan ahala, gero eta alde positibo gehiago ikusten nituen. Batez ere, ume bakoitzaren banakako taktikaren eta teknikaren garapena lantzeko.

Baina, denboraldi bukatuaren, Bizkaiko Klub eta Ikastetxe askoren eskutik, berriro ere umetxoan mailan 5x5 jokatzeke eskaera egin zen, eta, azterketa bat egin ondoren, aurtun bi aukera ditugu: 3x3 txapelketa, eta 5x5 denboraldi erdia eta 3x3 beste erdia jokatzea.

Horrela, Durangoko talde guztiok bigarren aukera hau hartu dugu. Baina, nire ustetan, eta talde eta banakako jokoen garapen zuzena lantzeko, lehenengo fasea 3x3 izan beharko zen. Dena dela, joango gara aztertzen eta lantzen, umeen garapena eta saskibaloian gozatzea inoiz ahaztu gabe.

Asteburu honetan izango dira lehenengo partiduak. Aupa neska-mutilak! Gozatu!

Bigarren eskuko materialen azoka egingo du Alpinok

Azaroaren 11n eta 12an izango da, Goienkalen

> MENDIA J.D.
Durangoko Alpinok-Tabira Mendi Klubak mendi materialaren bigarren eskuko azoka egingo du azaroaren 11ko barikuan eta 12ko zapatuan. Mendi materialaren berrerabilpena sustatzea eta horretarako bitartekoak eskaintzea dira Alpinok urtero antolatzen duen merkatu horretako helburuak.

Merkatu horretan materiala salgai jarri ahal izateko, aurretik eraman beharra dago. Egun

bi jarri dituzte horretarako: Azaroaren 8a eta 10a, 20:00etatik 21:00etara, Alpinok Goienkale kalean duen lokalean. Motxilak, arropa, eskalatzeko gauzak, bastoiak, botak, liburuak... eraman daitezke.

Azaroaren 11n, arratsalde irekiko dute merkatu txikia: 17:00etatik 21:00etara. Hurrengo egunean, goizez zein arratsalde bisitatu ahal da: 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Sei egunez mendia protagonista Elorrion

Azaroaren 7tik 12ra antolatu dituzte hitzaldiak

> MENDIA M.Zuazubiskar
Erdella mendizale taldeak antolatuta, azaroaren 7tik 12ra Mendi Astea egingo dute Elorrion.

Aurtengo ediziorako bost hitzaldi antolatu dituzte, eta Iñigo Iruretagoiena, Oihana Kortazar, Jairo Treceño, Ruben Río, Xanti Ugarte eta Alberto Ceberio izango dira horietan protagonista.

Lehen egunean, azaroaren 7an, Iñigo Iruretagoienak Himalaya izango du berbagai Itu-

rri kultur etxean, 19:30ean. Bigarren egunean, berriz, Oihana Kortazarrek mendi lasterketen inguruan hitz egingo du.

Eguaztenean, Jairo Treceño eta Ruben Río *harkaitza eta uraren* inguruan arituko dira, Gaztetxean. Eta, egunean, Xanti Ugarte espeleologoa egongo da.

Azken hitzaldia, berriz, barikuan izango da. Eta bertan, Alberto Ceberio mendian segurtasunez nola gozatu azalduko du.

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua Industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com



Durangoko Bed's dendan atsedenen onena eskaintzen dizugu

Marka nagusietako produktuak, neurrira egokitutako konponbideak eta produktu esklusiboak, zeuretzat

> Bed's

Atsedeen on batek bizi-kalitate hobea bermatzen du, gauean ondo lo eginez gero gure ongi-zate-sentsazioa areagotzen da, bizitasun gehiago daukagu eta gure errendimendu intelektuala hobetzen dugu. Atsedena eragina du gure eguneroko errendimenduan eta gure gogo-aldartean. Deskantsu onak bizitza hobea dakar.

Batez beste, gure bizitzako haren bat lotan pasatzen dugu, eta denbora hori ahalik eta hoberean aprobetxatzeko, lo indarberritzaile batekin, beharrezkoa da ohe apropos bat izatea, ezberdina pertsona bakoitzarentzat.

Durangoko gure Bed's dendan erabiltzaile bakoitzaren ezagutza pertsonalak ezagutu nahi ditugu horrela, bakoitzaren beharrezko fisiko eta ekonomi-

koetara moldatuz, aukerarik egokienak eskaini eta atsedenen onena bermatzeko.

Zure atsedenerako ekipamendurik aproposena aukeratzeko orduan, hainbat gauza kontuan hartu beharko dituzu; koltxoien sendotasuna, bakarrik edo bikotekidearekin lo egiten duzun, erabiltzailearen pisua eta altuera, hozbera zaren ala ez, lo egiteko ohiko postura, eta baita zure aurrekontua ere.

Atsedenerako ekipamendua osatu eta atsedeen onena bermatzeko, hainbat osagarri ditugu: oheko arropa (Bed's dendan beti ere %100ean kotoizkoa izatea gomendatzen dugu), burkoak, nordikoak, tapakiak edo plaidak, eta baita koltxoi eta burko-azalak ere, hauek zaindu eta egoera onenean ahalik eta denborarik gehien mantendu daitezten.

Koltxoi, ohe-oinarri, somier, burko eta etxeko osagarrietan adituak gara, eta gure hornitzaileei kalitaterik onena eskatzen diegu. Horregatik, merkatuko lehen markekin baino ez gara fidatzen. Durangoko gure Bed's dendan, besteak beste, honako markak aurkituko dituzu: Pikolin, Bultex, Lattoflex, Epeda, Velfont, Bassols, Desigual... Produktu hauetako asko eta asko Bed's dendetan baino ez dituzu aurkituko, guretzat modelo esklusiboak baitira.

Atsedena ganoraz hartzea hobeto bizitzea da, eta Durangoko Bed's dendan horixe lortzen lagunduko dizugu

Bed's dendak apartekoak dira, eta barneko diseinuak, pertsonal adituak bezeroarekin duen arreta goxoak eta produktuen eskaintza zabalak erosotasuna bermatzen dute, hautaketa hoberean lagunduz.

Etzan gure koltxoietan, aukeratu gehien gustatzen zaizkizun izaren kolorea eta diseinua, probatu gure burkoen erosotasuna, galdetu dauzkagun askotariko ohe-oinarri eta somierengatik, eta egin zure aukera. 30 eguneko probaldia duzu, eta beraz, lasai aukeratu.

Eta aukera errazteko, etxera eramateko zerbitzua eskaintzen dizugu. Gure langile adituek ekipamendua eraman, muntaketa egin, eta zure koltxoi zaharra erretiratuko dizute, hala behar izanez gero. Gainera, ordaintzeko orduan ere erraztasunak eskaintzen dizkizugu.

Durangon Alluitz kaleko lehen zenbakian aurkituko gaituzu, eta bertan Rosak pozik lagunduko dizu zure atsedenerako aukerarik onena egiten.

Beraz, badakizu, lo egiteaz gain atsedeen hartu nahi baduzu, zatorz Durangoko Bed's dendara!





DURANGO Alluitz Kalea, 1 - 94 400 5980



KOLTZOIAK
OHE-OINARRIAK
BURKOAK
OHEKO ARROPA

“Joko puntu onean nago; txispagaz eta konfiantzagaz helduko naiz partidura”

Aitor Elordik Promozio mailan lau t'erdiko finalerdia jokatuko du gaur Mallabiako pilotalekuan



Aitor Elordik urtarrilean debutatu zuen profesionaletan, Aspegaz.

> PILOTA Joseba Derteano Debuta egin duen urte berean profesionaletako lehen finala jokatu dezake Aitor Elordik (1996, Mallabia). Gaur gauean promozio mailako lau t'erdiko pilota txapelketako finalerdia jokatuko du Dario Gomez ezkaraitarraren (Errioxa) kontra, Mallabiko pilotalekuan.

Ligaxkan partidu bi irabazita (22-12 Ugalderi eta 22-21 Taintari) eta bat galduta (15-22 Artegaren kontra) egin du fina-

lerdietarako bidea, eta sasoiaren dagoela dio: “Joko puntu onean nagoela uste dut. Txispagaz eta konfiantzagaz sentitzen naiz, eta uste dut ondo helduko naizela partidura”.

Jaioterrian eta herritarren aurrean jokatuko du bere ibilbideko partidurik inportanteena. Urduritasuna izango da, beharbada, gaurko partiduan kudeatzen zailena izango den alderdia. Alde onak eta ez hain onak ikusten dizkio etxean jokatzeari:

“Dena ondo badoa eta partidua irabaziz gero, egun borobila izango litzateke, baina herritar denak bertan daudela partidua eskasa jokatuta galduz gero...”.

Dario aurkari gogorra dela onartu du: “Pilotari abiadura ematen dio, eta saketik min handia egiten du”. Baina Elordiren armetako bat sakea da, eta “neure min egiten saiatuko naiz”. Beraz, erretoak zeresan handia izan dezake partiduen garapenean. Alderdi horretan, espero

baino hobeto dabilela dio: “Txapelketa hasi aurretik, erretoan beldur apur bat nuen, aurrelaria naizelako, ez nagoelako ohituta, eta profesionaletan denek ematen diotelako abiadura pilotari. Baina, oso gustura egon naiz orain arte”. Egunean bertan egingo dute pilota aukeraketa. Saskian dagoenetik “nik motelagoak eta Dariok biziagoak” aukeratu dituztela uste du.

Gaurko jaialdia atariko batzegaz hasiko da, 22:00etan: Mendizabal III-Tolosa / Elezkano II-Irusta.

10 hilabeteen balorazioa

Profesionaletan daramatzan 10 hileen balorazio positiboa egiten du Elordik. Behetik gora daraman bideagaz geratzen da: “Debutatzen den momentutik oso ondo jokatzen aritu behar duzula pentsatzen du jendeak, eta ez da horrela. Prozesu bat da. Apurka-apurka eta gogor entrenatuta ikasi beharra dago. Niri arrankatzea kostatu zitzaidan, beharbada afizionatuetan hainbeste jokatu barik berde samar debutatu nuelako. Baina, orain, debutatu nuenean baino askoz gusturago sentitzen naiz”.

Mimenza eta Marañoen onenak proba banatan

Mutrikuko eta Basauriko probak irabazi dituzte



Txomin Marañoen Basauriko podiumean. Durangaldea Running

